

URRETXUKO EUSKAL JAIAREN 50. URTEURRENA

·Zuek bai jakin!: Jesus Mari Kerejeta 'Atxunberri' ·Erreportajea: Donejakue Bidea, astoak lagunduta ·Izerdi patsetan: Luis Blazquez ·Boteprontoan: Asier Auzmendi

Herri Aldizkaria Otamotz

2009ko

iraila


149. alea



Herri Aldizkaria
Otamotz.com

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda, inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!

altia



IKER

Ipeñarieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI



FAGOR

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Urretxuko Kultur Etxea **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Urretxuko Euskal Jaiaren 50. urteurrena
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Urretxuko Euskal Jaiak 50 urte bete ditu?
Nola bizi duzu festa hau?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**
Javier Alonso
- 18 Zuek bai jakin!**
Jesus Mari Kerejeta 'Atxunberri'
- 22 Erreportajea**
Donejakue bidea, astoak lagunduta
- 25 Argazki zaharra**
- 26 Izerdi patsetan**
Luis Blazquez masajista
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Asier Auzmendi



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Urretxuko Euskal Jaia: 50 urte eta lehen egunean bezain gazte

Urretxuko Euskal Jaiak 50 urte bete ditu aurten eta urteurrena ospatzeko hainbat ekimen antolatu dira: erakusketa, liburu baten argitalpena, buru-handi berrien aurkezpena... Dena den, beti bezala, ekitaldi nagusia karrozen desfilea izan da. Protagonista nagusiak, berriz, karrozero beteranoak izan dira: 50 inguru aritu dira lanean eta lau karroza egin dituzte. Horietako lau Euskal Jaiaren lehenaz, orainaz eta etorkizunaz mintzatu dira Otamotz aldizkarirako: Pedro Narbaiza, Bixente Lasa, Ignacio Murua eta Mikel Soraluze. Saritutako karrozaren egileak dira, gainera.




Txirimiriko Narbaiza aitzindarietako bat da. Urte askotan parte hartu zuen desfilean eta, ondoren, epaimahaiko kidea izan da. Lasa, Murua eta Soraluze, berriz, Irrintzi koadrilako kideak dira. Beraiek eta euren lagunak karroza umoristikoaren garaian hasi ziren: 60ko hamarkada amaieran. Horietako bi egin zituzten, Euskal Jaia berreskuratu aurretik.

Soraluzek azaldu du zergatik erabaki duten berriro parte hartzea. “50. urteurrena ospatzen denez, Bixentek parte hartzea proposatu zigun, ondo iruditu zitzaigun... eta hementxe gaude. Ez dakit zenbat denborarako...”, aipatu du, hurrengo urteetan ere karroza egiteari atea itxi gabe.

Lehen aldiz parte hartu zutenean, arrazoiak bestelakoak izan ziren. “Festa bizitzeko, zer edo zertan parte hartzea beharrezkoa da. Onena, karroza egitea da. Karrozak egiteari uzten zaionean, festaren zati bat galtzen da. Jaiak barrutik bizitzea edo kanpotik ikustea ez da gauza bera. Aurten, guretzako, festak aurreko urteetan baino hilabete lehenago hasi dira”, gehitu du Soraluze.

Lasa iritzi berekoa da, baina karrozak egiteko arrazoi gehiago ere izan zituztela dio. “Gure aurrekoak, Pedro Narbaiza eta gainontzekoak, oso garrantzitsuak izan ziren guretzat. Txikitatik Euskal Jaiarekin identifikatu nintzen, bizipenak oso politak baitziren: Ondarroatik dantza egitera etortzen ziren arrantzaleak, giroa, abertzaletasuna suspertu eta azaldu nahia... gogoratzen ditut. Markatu egin ninduten eta haiek hasitako bidea jarraitu nahi nuen: giro euskalduna eta abertzalea sortu”.



Lasa, Murua, Soraluze eta Narbaiza, euren karrozan.

Frankismo garaian festa euskaltzale eta abertzalea bultzatu zuenetako bat

Mikel Soraluze:

“Aurten, guretzako, festak aurreko urteetan baino hilabete lehenago hasi dira”

Pedro Narbaiza izan zen. “18 urte nituen eta gu baino apur bat zaharragoak zirenek antolatu zuten lehenengoz ekitaldi aldarrikatzaile hau”, oroitzen du. Bera baino gazteagoek ere berehala bat egin zuten. “Francoren erregimenak zapaldu

egin nahi gintuen, baina horrexek berak parte hartzera bultzatzen gintuen. Gainera, nire anaiaren koadrilakoek ere parte hartzen zuten. Praka mo-tzak eramaten genituenean, dagoeneko karrozak egiteko gogoia genuen. Txirimiri, Urretxua... koadrilakoek nola lan egiten zuten ikustera joaten ginen”, dio Muruak.

Hala, ederki asko gogoratzen dituzte 50 urte hauetako gertakariak. “Segura eta Arrate irratiak itxi nahi izan zituzten urtean kontu horri buruzko karroza egin zutela oroitzen dut, adibidez”. Zentsurari aurre egin behar ziotela ere ez du ahaztu. “Ikuskatzaileei sekula ez genien erakusten igandean atera behar genuen guztia”.

Zentsura desagertu zen eta, beste hainbat gauzatan ere, hobekuntzak izan



Murua, Narbaiza eta Lasa, lanean.
Argazkia: Gotzon Aranburu.

dira. “Lan egiteko orduan, garai batean ez genituen egungo lokal ederrak. Bestalde, diru gutxi genuen. Herriko

Bixente Lasa:

“Txikitatik Euskal

Jaiarekin identifikatu

nintzen, bizipenak oso

politik baitziren”

eraikitzaileen laguntza genuen: zuzena edo zeharkakoa. Behin Bernarasi egurra ostu genion eta hurrengo egunean gehiagoren bila joan ginen. Prezioa galdetu nion eta, gutxienez salneurria gal-

detzeko detailea izan nuenez, behar genuen guztia hartzeko esan zidan. Ez zekien ondo nor ibili zen gauean lapurretan! Dena den, lapurretak ez zituzten salatzen. Hori zen Euskal Jaia laguntzeko zuten modua eta eskertzekoa da”, oroitzen du Narbaizak.

Lasak ere gauza asko aldatu direla dio. “Pedrok egun toki egokietan lan egiten dela esan du eta arrazoia du. Guk, lehenengo urtean, oinarria lurrean jarri behar izan genuen lokalak altuera txikia zuelako. Lana bukatu genuenean, arrastaka atera genuen. Lokala Zumarragako batena zen. Garai batean koadrila bakoitzak lan egiteko tokia aurkitu behar zuen eta jendeak beti borondate ona izan duela esan behar da”. Karrozak egiteko erabiltzen diren materialak ere asko aldatu dira. “Gure garaian egurra

eta igeltsua erabiltzen ziren. Orain, ordea, poliespana eta an-tzerakoak dira nagusi. Nire ustez, horiek kutsu artifiziala ematen diete lanei. Lehen, beharbada karroza gainean jendea joaten zelako, lanak adierazgarriagoak ziren. Kasualitatez neska batzuek igeltsuaren erabileraz galdetu didate eta guretzat hori berreskuratzea garrantzi-tsua izango litzatekeela esan diet. Ea gure ohitura zaharrak, baina onak, gazte jendeari kutsatzea lortzen dugun”, aipatu du Bixente Lasak.

Beharbada lortuko dute, gazteekin

Ignacio Murua:

“Karrozak sinpleak dira

eta, tradizioari eutsi nahi

badiogu, maila igo

beharra dago”

harreman ona izan baitute. “Gustura lan egin dugu elkarrekin, baina herrian gazteak lotsagarri utzi nahi genituela zabaldu da. Ezta gutxiago ere! Bakoitzak bere estiloa du eta kito”. Dena den, Muruak gazteek zer hobetu badutela uste du. “Nire ustez, kalitateak behera egin du. Karrozak sinpleak dira eta, tradizioari eutsi nahi badiogu, maila igo beharra dago. Egundak, azkarregi egiten dira. Herritarrek lan egiten dela ikusi nahi dute”.

Narbaizak, ordea, gazteek nahikoa egingen dutela uste du. “Oso gazteak direla eta diru gutxi ematen zaiela kontuan

izan behar da. Sekulako borondatea erakusten dute eta hori eskertu beharrekoa da". Soraluze, berriz, bie ematen die arrazoiaren zati bat. "Kalean karroza ona egiteko eskatu didate. Batzuek aldarrikapen kutsua ez dela galdu, baina garai batean baino lan gutxiago egiten dela uste dute".

Lasak konponbide bat proposatu du. "Aurten hamarkadaka lan egitea proposatu digute, baina beharbada egokiagoa da garai ezberdinetako jendeak nahastuta lan egitea. Bi joerak fusionatzea aberasgarria izango litzatekeela uste dut", aipatu du.

Lan egin eta desfilea nola hobetu pentsatzeaz gain, beteranoek giroaz gozatzeko aukera ere izan dute. "Karroza prestatzen egon garen egunetan, hamaika pasadizo oroitu ditugu. Bestalde, hemengo giroa berreskuratzea sekulakoa izan da. Izan ere, hori funtsezkoa da", gehitu du Muruak. Hori bai, garai bateko ohitura batzuk alde batera utzi dituzte: ez dute materialik ostu. "Ez da adore faltagatik izan, e! Dena den, Udalak ematen duen diruarekin ezin da oso urrutira joan. 600 euroekin ezin da karroza txukunik egin".

Muruaren kideak berarekin ados daude, baina Lasak lanabesak lortzea erraza dela dio. "Nire ustez, hemengo enpresetara karroza egiteko tresnen eske joanez gero, gehienetan uzteko prest izango dira. Izpiritu horrek oraindik bizirik dirauela uste dut. *Pastas* eta Muruak ohitura zahar bat berreskuratzea lortu dutela ikustea besterik ez dago: garai batean bezala, eurek eskatuta, herriko edari banatzaile batek garagardoak, zukuak eta ardoa ekarri ditu karrozeroentzat".

Soraluze eta Murua, Lasaren azalpenak jarraitzen. Argazkia: Gotzon Aranburu.



Bukatzeko, urterik gogoangarriena aukeratzeko eskatu diegu lau beterano-

Pedro Narbaiza:

"Gazteek sekulako borondatea erakusten dute eta hori eskertu beharrekoa da"

ei. Bixente Lasak desfilearen amaieran zazpi ikurrina atera zirenekoa gogoratzen du bereziki. "Egun hartan malko asko isuri ziren, baina ez zen baten edo bestearen meritua izan, hasieratik landutakoaren emaitza baizik: izan ere,

Euskal Jaiak festa eta aldarrikapena uztartu ditu beti".

Soraluzek, berriz, ETAkidearena egiten ari zen herritar batek euren koadrilak egindako karrozako barroteak hautsi eta barruko Euskal Herriaren lurralde mapa altxatu zueneko oroitzen du. "Hunkigarria izan zen, baina zer edo zer larria gertatuko zela uste genuen. Zorionez, ez zen ezer gertatu", aipatu du urretxuarrak.

Dena den, hunkigarriena festak bizirik dirauela da. "Azken urteotan atzeguardian egon gara, baina sekulako ilusioa egiten digu garai bateko karrozerook jarraitzaileak ditugula ikusteak. Nik bi alaba ditut eta biak ibili dira karrozak egiten. Aurten, berriz, iloba bat atera da. Hori oso pozgarria da niretzat", amaitu du Bixente Lasak.

Euskal Jaiaren 50. urteurrena argazkitan



Euskal Jaiaren 50. urteurrena argazkitan



1-Xake koadrila. 2-70eko hamarkadako (Bide Berrian, Lagun Gazteak eta Iraultza koadrilak). 3-60ko hamarkada (Irrintzi, Txirimiri, Pitxu, Zakataprost, Biera eta Lepaiar koadrilak). 4-90eko hamarkada (Bandbuztanoker eta Berdin Jat koadrilak). 5-Buztangorri koadrila. 6-80ko hamarkada (Txintzarri koadrila). 7-Arlote. 8-Zoze koadrila. 9-Askatasuna koadrila. 10-Kiribil koadrila. 11-MDY koadrila. 12-Bota Piñue koadrila. 13-...edo koadrila. 14-Karroza sarituaren egileak, 'Gernikako Arbola' abesten. 15-Euskal jan-tzien azoka. 16-Mikel Ibarzabal buruhandi berriak egiten. 17-Euskal Jaiari buruzko liburuaren aurkezpena.

Euskal Jaiaren 50. urteurrena argazkitan



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60

BIONA

AROTEGIA Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 baxua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



alejandra albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

PLAZAOLA ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Muntaketa & Instalazioen Zerbitzua

HERCE

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



natural optics URRETXU

Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINITZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU



Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com



Construcciones MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@mendiola.com
www.cmendiola.com



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Otamotz

Herri Aldizkaria


TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



egurra partitzen

Jon Torner



Urretxuko alkate

Azkenean gertatu da. Zutabe honetan hamaika soflama patriotiko bota ostean, komiki batek ezagun egin zuen fikziozko gitarra-jolearen sorerriera egin dut salto. Emandako urratsa patuaren ondorio dela eta antzerakoak esanez has ninteke, guztiz normala dela, jende askok egin duela gauza bera. Alde bateko Kultura zinegotziak eta errekez bestaldeko alkateak, adibidez. Badakit, ordea, ez nukeela Jon konbentzituko, eta alferrikako azalpenik ez dut emango. Galderarik ez dut onartuko gainera, itzalpetik azal daitekeen kazetari intrepido ala marujo are intrepidoari ez diodalako nire errugabetasuna kolokan jartzeko aukerarik eman nahi.

Bai esan dezaket, ordea, helburu potoloa ezarri diodala neure buruari. Orain arte pentsaezina zena lortu nahi dut: Urretxuko alkate bihurtzea. Alkate populista bat, Hugo Chavez eta Antton handia eredu hartuta. Badakit sakrifizio handia

eskatuko duela, baina edozertarako prest nago, baita Euskal Jaietako karroza desfilea amaitzean "Gora Iparragirre eta Urretxuarrak!" oihukatzeke ere. Abade jaunak baino entusiasmo handiagoa behintzat jarriko diot asuntoari.

Bera poltronatik kentzeko zer egin behar dudan oso ongi dakit. Hasteko, norbait bidaliko dut lan hori betetzera, demokrazia andereñoa-edo. Gero lpeñarrieta auzoko lobby-a konbentzitzen saiatuko naiz. *Núcleo duro* horrek nire kausarekin bat egiten badu, erraza izango da boterera heltzea. Eta, gauzak konplikatzen hasten badira, labeldun bi bizkartzain fitxatuko ditut: Igor estrategias eta Eneko Nsue.

Eta zuk Jon, zer uste duzu, herri honetako alkate izateko aukerarik badaukat? Zu Legazpi edo Azpeitiko izateko baino gehiago behintzat bai, ala? Faborez, erantzun kabroiegirik ez bota, oso sensible nago-eta.

Urretxuko Euskal Jaiak 50 urte bete ditu.

Nola bizi duzu festa hau?



Jesus Angel Junquera



Itziar Yurrebaso



Iñaki Zabalo



Marisa Vielba



Txikia nintzenean karrozak banan-banan eta adi-adi ikusten nituela gogoratzen dut. Egia esan, karrozeroek lan bikaina egin dute beti. Izan ere, ordu pila bat sartzen dituzte euren lana jendeari zintzo erakutsi ahal izateko. Beraien ahalegina eskertzekoa da.

Betidanik atera izan naiz kalera Euskal Jai egunean. Ez dut sekula karrozarik egin, baina egun hau oso gogokoa dut. Urtero festaz gozatzen ahalegintzen naiz, baina iaz ezin izan nuen desfileaz gozatu, hurrengo egunean klasera joan behar nuelako.


Beno, ni Ezkiokoa naiz, baina maiz etorri gara Urretxu eta Zumarragara parranda egitera. Gainera, desfilea oso polita da. Iaz nire seme zaharrena itzainekin atera zen. Euskal Jaia guztiok zaindu beharreko ondarea da.

Euskal Jaia asko gustatzen zait, herrian antolatzen diren gainontzeko ekitaldi askorekin alderatuta ezberdina delako. Giroa atsegin dut, batez ere. Jendea euskal jantzia soinean ikustea oso polita da. Euskal Jaiak garai batean nolakoak ginen gogoratzeko balio du.

Gaia: begia. Hurrengo alerako jarritako gaia: katea.

Doinua: Espainian behera

Gorka Ojanguren



Kate begia lotuz
kate begiari,
kurtso berriak dakar
berrikuntza, adi!
Aurrekoak utzia
guretzat opari
izango da hurrengo
gai edo gidari
guztiok kateatu
gaitezen kantari.

Zer den argazki hontan
ikus litekena:
bidaia bat norbere
baitaren barrena,
batzutan iluntasun
bihurtzean dena
begirada bat degu
modurik onena
ulertzeko hitzekin
esan ezin dena.

Bat hartu ta bat utzi
hurrengoarentzat,
zernahi hartu liteke
hemen oinarritzat
argazki bat, puntu bat,
nahiz norbaiten hitzak,
prentsako titularrak
zuriak ta beltzak,
katea nola segi
pentsatu bakoitzak.

iritziz iritzi

Josune Zarandona



50 urte... eta aurrera

Urretxuko Euskal Jaiak 50 urte bete ditu. Nik, noski, ez ditut hasierako jaiak ezagutu, baina helduagoek kontatu didatenagatik eta dokumentu zaharretan ikusitakoagatik ondorioztatzen dut bazutela hasierako jai haiek aldarrikapenetik asko. Izan ere, Urretxuko Euskal Jaia, jai bat baino gehiago da. Sentimendu bat ere badela esango nuke. Nik, zumarragarra izanagatik (badakit bat baino gehiago haserretuko zaidala honengatik), Urretxuko Euskal Jaia nire bezala sentitzen dut. Zuetako askori ere berdin gertatuko zaizuelakoan nago. Herritarrak jai baten inguruan batzen dituen eguna da. Euskaldun izaera eta izatea inoiz baino biziago sentitzen dugun egun bat. Kolektibo baten parte sentiarazten gaituen egun bat. Asko dira,

zorionez, karrozetan parte hartzeko izena ematen duten koadrilak. Eta karrozetan gazteak kezkatzen dituzten gaiak islatzen dira. Mende erdian gauzak asko aldatuko ziren, seguru, baina Euskal Jaiak jarraitzen du aldarrikapen kutsu hori izaten. Horregatik, sortzen ari garen gizarte kontsumista eta konformista honen aurrean, oraindik ere injustiziak salatzeko gai denik dagoela ikusteak poza ematen dit. Ni ere ibilitakoa naiz lan horietan eta aitortu behar dut nostalgia goxoz gogoratzen ditudala urte haiek. 50 urte igaro dira dagoeneko. Eta hemendik 50 urtera hain gurea den jai honek bizi-rik iraungo du, seguru nago. Gaur egun duen izaera eta izpiritu horrekin jarrai dezala espero dut. Gure esku baino ez dago.



ACME Novelty Library

Chris Ware

ACME Novelty Library (ANL), liburu poliedrikoa da. *Rayuela*, edo *Quosque Tandem...*! bezala, irakurle aktiboa, jakinguraz betea eskatzen du. Izan ere, Chris Ware liburuak ezin dira edozein modutan irakurri. Lehen ikusi batean, orrialde guztiak letraz zein irudiz josita agertzen dira. Azalean izan ezik, beste inon ez dugu bistari atsendentxoia emateko parada izango. Chris Warek, Estatu Batuetako depresio garaiko prentsa-

ren estetikaz baliatuz, ACME konpainia sortzen du, bere unibertso malenkoniatsu eta tristearen isla. Liburuan zehar agertzen diren pertsonaiak gizarte garaikidearen alde ilun, marjinal eta zaputzen erakuslehoiak dira. ANL, jatorriz, 15 comic-book ziren, 1993-2001 urte bitartean argitaratuak. Oraingoan, Warek edizio bateratu dotorea prestatu du.

Lutxiano


Argia eta itzala

Piztiak

Nortasun propioa dauka Piztiak Ondarroako taldeak, eta hori ez da gutxi. Dauka diot, aspaldi, 1980ko hamarkadaren amaieran, sortu bazen ere, diskoak tantaka kaleratu izanagatik, udazken-negu honetan beste bat aterako duelako. Eta albistea pozgarria izango da, labean dagoen disko hori *Argia eta Itzala* (Gaztelupe Hotsak, 1998) lan kontzeptualaren mailara hurbiltzen baldin bada behintzat. Itzalak eta argiak, bizitzaren

gorabeherak, nahasten zituen hark, eta gitarreri, testuen emozioei eta tartekatutako bi ahotsen gordintasun zein ezintasun horri esker, norberak bere egiteko moduko abesti ahaztezinak osatu zituzten, Ordu bete aurrenekoarengandik hasita. New Order, REM, Pixies, Neil Young, The Cure edo The Cult erreferentzia kutun bezala badituzte, ezin ba gauza txarrik erditu.

Igor Susaeta



El truco del manco

Santiago A. Zannou

Filmaren protagonista nagusia *El Cuajo* da. Mugikortasun arazo latzak ditu. Burua, berriz, ederki doakio, ia-ia mingaina bezain ederki, eta hori asko esatea da. Izan ere, kantatzen duen rap-ean garbi geratzen da zein den bere dohaina: "Con este físico—dio—, mira tú qué bien me explico". Adolfo da *El Cuajoren* lagun-mina. Horren "elbarritasuna" ez da fisikoa, beste klase batekoa baizik: mulatoa da, drogen

menpean egon da, kartzela ezagutu du... *El Cuajok* Adolfo konbentzitzen du grabazio estudio bat egiteko, ezerezetik, dirurik gabe eta, gainera, hilabeteko epean. Haien ahaleginean, hainbat gauza gertatuko dira, auzoaren bizimoduaren isla. Auzoetatik ateratako "deiadar bat balitz bezala" ulertzen du Santiago Zannouk bere lehen film luzea. Ostiral honetan Zelai Ariztin eskainiko da.

ButaK 21 zineklub taldea



Urretxu eta Zumarragan gauetz ateratako argazkiak.

Javier Alonso



Jesus Mari Kerejeta: herriko ekimenetan, beti laguntzeko prest

Urretxuertasuna bihotzean daramaten makina bat familia badira bere festa handiaren 50. urteurrena ospatu duten herrian. Horietako bat Kerejeta sendia da. Zortzi anaia-arreba dira, zein baino zein urretxuarragoa. Jesus Mari izan da Otamotzerako bere familiaz eta bizitzaz hitz egin duena.

Jesus Mari Kerejeta, Urretxuko Iparragirre plazan.



Zer diozu zure familiaz?

Zortzi anaia-arreba gara, bost mutil eta hiru neska, eta guztiok Urretxun jaiotakoak gara. Denok etxean jaio ginen: Iparragirre kaleko 17an. Garai batean denok etxe berean bizi ginen: 10 lagun. Anai guztiok monagiloak izan ginen, hala etxerako sos batzuk lortzen genituen. Goizeko 6.30eko mezatan laguntzen genuen eta, ondoren, okindegira joaten ginen laguntzera. Horren truke, ogi batzuk eramaten genituen etxera.

Gurasoak ere urretxuarrak al ziren?

Ez. Aita Aratz Errekakoa (Azpeitia) zen, Atxunberri baserrikoa. Ama, berriz, Lakute baserrikoa zen. Ezkondu zirenean Urretxura etorri ziren bizitzera eta aita Orbegozon hasi zen lanean. Orbegozon lan egin zuen bizitza osoan.

Nolakoak ziren gurasoak?

Oso zintzoak. Onegiak izan zirela uste dut. Elizkoiak ziren. Aita zenak kristo guztiari kasu egiten zion, euskalduna edo

erdalduna izan. Ama ezin zen horrenbeste atera kalera.

Nola gogoratzen duzu etxeko giroa?

Azkeneko pisuan bizi ginen eta ohe berean hiru lagunek lo egin behar genuen. Bi alde batera eta bestea bestera. Etxe txikia zen. Lehenengo ganbara batean bizi ginen eta gero teilatua altxatu egin zuten. Denok hor jaiotakoak gara. Gainera, gure ama zenak emakume askori erditzen lagundu zien eta, esnerik ez bazuten, euren haurrei titia eman zien. Bestalde, alpargatak josten zituen. Alpargatak gali-potetan zapaldu eta gero eguzkitan jartzten genituela gogoratzen dut. Hala, alpargata haiek gero irauten zuten.

Nolakoak zen kaleko giroa?

Ezkutaketan jolasten genuela gogoratzen dut. Eitzagaraino joaten ginen. Kaniketan, Urretxuko eliza atarian pilotan eta futbole-an... Pilotalekura ere joaten ginen, baina gu baino helduagoek bidali egiten gintuzten. Eitzagakoekin oso ondo konpontzen

ginen, baina Zumarragako gainontzekoe-kin ez. Eitzagako festetara joaten ginen, baina Zumarragakoetara ez. Alderantzizkoa ere gertatzen zen, e!

Lehia handia al zegoen urretxuarren eta zumarragarren artean?

Zelai Ariztiko frontoian futbol txapelketak jokatzen ziren eta Urretxukoek irabazi zutenean herriko banda trenbide ondoan zain zutela gogoratzen dut. Garai hartan Urretxu eta Zumarraga aparte zeuden. Elizatik elizara etxe gutxi zeuden: aldapa-koak eta Kalebarrenekoak bakarrik. Lehia handia zegoen. Behin batekoek bestekoei desafioa bota zioten eta Urretxuko kanpo-santuan borrokan ibili ziren. Eta jendea hura ikusten! Lehia handia zegoen eta guk oraindik ez dugu hori galdu. Kanpora joaten garenean argi uzten dugu gu ez garela Zumarragakoak, Urretxukoak bai-zik. Bi herriak fusionatzeko asmoa egon zen garaian, koadrilakook ekimenaren aurkako manifestazioan parte hartu genuen, pankarta eta guzti. Egia esan, urretxuar guztiak parte hartu zuten.

Nora joan zinen eskolara?

Eskola Nazionalak bertan genituen eta denok hantxe ibili ginen. Gure etxeko inor ez zen kanpora joan ikastera. 14 urtere-kin, lanera. Orbegozokoak eskolara etor-tzen ziren, ikasketak bukatzeaz geunden-bila. Beraiek erabakitzen zuten gure lanbidea zein izango zen: "zu ajustadore, zu iturgin...". Ni elektrizista bidali nindu-ten, ideiarik ez nuen arren.

Umetako pasadizoren bat gogoratzen al duzu?

Herriko toki batean Amabirjina azaltzen zela esan ziguten eta 8-9 urteko haur piloia joan ginen. Argia ikusi genuen zuhaitz artean eta sinestu egin genuen.



Gema emaztearekin, Euskal Jaia egunean.

Gero jakin genuen argindar kableek elka-rrekin jotzen zutelako sortzen zela argi hori. Bestalde, San Nikolas egunean hau-

“Eitzagakoekin oso

ondo konpontzen

ginen, baina

Zumarragako

gainontzekoekin ez”

rrak etxez etxe joaten ginen diru eske. Bat obispoz jantzita joaten zen. Zer kantatzen genuen ere gogoratzen dut: *San Nikolas txikia / gure ganbaran hazia / gure ganba-ran zein dago? / andre Juana Maria /*

arren, arren, Ave Maria / Dios te salve bataio gabe / bost eta sei, hamaika / txori-xorikan ez bada / berdin zaigu lukainka. Horiek xeblebrekeriak!

Nolako izan zen zure gaztaroa?

Beharrak agintzen zuen. 14 urterekin Orbegozon hasi nintzen eta lanetik kanpo ile-apaindegi batean laguntzen nuen. Sei urte eman nituen hala. Orbegozoko solda-ta sobre batean ematen ziguten eta, ireki gabe, amari ematen genion. Amak, gero, diru pixka bat ematen zidan. Andregai-a aurkitu nuen arte, irabazitako diru guztia amari eman nion. Lanetik kanpo, dantzal-dietara joaten ginen, adibidez. Gehienak Zumarragako plazan antolatzen ziren. Garai batean bietan izaten ziren dantzal-diak, baina Urretxukoa desagertu egin zen. Golden ireki zenean, Zumarragako-a ere pikutara joan zen. Izan ere, Goldenen irekiera sekulakoa izan zen. Bonbazoa. Abeslari oso onak ekartzen zituzten. Bertan ezagutu nuen emaztea eta, nik bezala, beste askok. Mendira ere asko joaten ginen. Garai batean Goierriren mendi saileko arduraduna izan nintzen.

Zein irteera oroitzen duzu bereziki?

Datorren hilean 40 urte egingo du: Ezcarayra joan ginen autobusean, San Lorenzo mendia igotzeko asmoarekin. Murua zapataria, beste lagun batekin, beheran gelditu zen bazkaria prestatzen. Gure asmoa mendi gailurrera igotzea eta beheran bazkaltzea zen, baina sekulako lainoa zegoen eta galdu egin ginen. Autobus erdia bakarrik itzuli zen Urretxura. Besteak han gelditu ziren, gal-duta. Hurrengo egunean galdutako ba-tzuen gurasoak etorri ziren nire etxeko atarira, semeengatik galdezka. Lau bat auto hartu eta Ezcarayra itzuli ginen, bes-

Zutik, ezkerretik lehena, gurasoekin eta anaia-arrebekin.



teen bila. Joseba Jaka izan zen nirekin batera galdutakoen bila ibili zenetako bat. Batzuk berehala azaldu ziren, baina besteak astelehenean. Lan egun bat galdu genuen. Itzuli ginenean, jendeak adarra jo zigun. Aurrerantzean iparroratzak eraman beharko genituela esaten ziguten.

Asko ibiltzen al zinen mendian?

Igandero nonbaitera joaten ginen: Aizkorrira, Txindokira, Erniora, Izarraitzera... Gero, ikastolako haurrekin hasi nintzen. Bizpahiru autobus betetzen genituen. Oraindik ere ibiltzen naiz. Duela gutxi, adibidez, Ernion izan nintzen. Emaztea eta biok urtero joaten gara Izarraitzera, Aizkorrira eta Txindokira. Dena den, lehen baino gutxiago ibiltzen naiz. Alferkeria kontua da. Gero kontuak... Irimo lehengo tokian dago, baina...

Lehen lanpostua Orbegozo enpresan izan zenuela esan duzu. Zer moduz?

Ez dut oroitzapen txarrik. Zazpi urte egon nintzen bertan. Ondo etorri zait han ikasi-

takoa, etxeko txapuzak nik egiten baititut. Bestalde, soldadutzan lagungarria izan zitzaidan: Arakan ez nuen instrukziorik egin ilea mozten lan egiten nuelako eta Donostian elektrizista lana egiten nuelako.

Zergatik utzi zenuen lantegia?

Banco Central zelakoan sartzeko aukera izan nuelako. Urretxun bulegoa ireki zuten eta Legazpi, Urretxu eta Zumarragako kaleak ezagutuko zituen norbait behar zuten. Izan ere, garai hartan bankuko letrak eskura kobratzen ziren eta etxez etxe ibili behar zen. Astean bitan Legazpira joaten nintzen, Mobylette batean, eguraldi ona edo txarra egin. Orbegozotik bankura pasatu aurretik, hiru hilabete eman nituen lagun batekin ikasten: Gurutz Jauregi abokatuarekin. Hark banku batean lan egiten zuen eta bazekeen zer egin behar zen. Banco Centralen bulegoa Zuhaizti tabernaren parean zegoen. Centralak Hispanorekin bat egin zue-nean Zumarragara pasa nintzen eta, gero,

Central Hispanok Santanderrekin bat egin zuen. Santanderren eman nituen erretiratu aurreko azken urteak.

Gustura lan egin al zenuen bankuan?

Bai. Lantegiko lana baino erosoagoa zen, baina hasieran bankuan gutxiago irabazten nuen. Dena den, ez zegoen buzoa jantzi beharrik. Gainera, Orbegozon goiz eta arratsaldean lan egiten genuen eta, batzuetan, igandeetan joatea tokatzen zitzagun. Bankuan oso ondo egon nintzen.

Lehen mendizalea zarela esan duzu. Zer beste zaletasun dituzu? Zure familiar musikariak dira...

Ni naiz txistua eta danbolina jotzen ikasi ez duen anaia-arreba ia bakarra. Niri kantatzea gustatzen zait.

Saskibaloizalea ere bazara.

Semeak ere zale amorratuak dira. Baskoniaren elastiko guztiak dituzte. Ez dakit zergatik naizen saskibaloizalea. Beti Baskoniaren jarraitzailea izan naiz. Seme zaharrena *Final Four* askotan izan da. Txirrindularitza ere asko gustatzen zait.

Jokalari kuttunen bat ba al duzu?

Gehien gustatu zaidana Macijauskas da. Entrenatzaileen artean, berriz, Ivanovic gustatzen zait. Aurten ere jokalaria guztiak aldatu ditu, baina zer edo zer lortuko du...

Jaiak aipatu dituzu. Urretxuar petoa izanik, Euskal Jaia nola bizi duzu?

Karrozak egindakoa naiz eta behin guk irabazi genuen. Beti Jai koadrilakoa naiz. 18-19 urterekin hasi ginen eta bost edo sei karroza egin genituen. Irabazi genuenean, Iparragirreraren kanta baten notak zituen liburu handi bat, txistu handi bat eta danbolin handi bat egin genituen. Liburua Urretxuko udaletxean gordeta dago. Gitarra handi bat ere egin genuen eta Zarauzko elkarte batek erosi egin nahi

Koadrileko lagunekin, karroza onenari saria irabazi zutenean.



izan zuen. Eskaini ziguten dirua gutxi zela iruditu zitzaigun eta ez genuen saldu. Azkenean, gitarra hura izorratu egin zen.

Euskal Jaia asko aldatu dela uste al duzu?

Karrozak egiten dituztenak gazteegiak direla iruditzen zaigu, baina guk egungoen adin berberarekin egiten genituen karrozak. 18 urte banitu, egungo gazteek egiten dituzten gauza berberak egingo nituzkeela uste dut: Gaztelekura joan, porrotxoren bat erre...

Euskal Jaiaren inguruko pasadizoren bat ba al duzu?

Euskal Jaia guretzako sekulakoa da. Ikurrina debekatuta zegoenean, Iparraldeko dantza talde batek atera egin zuela oroitzen dut. Kendu egin nahi zieten eta dantzariak gure atarira sartu ziren. Garai hartan ikurrina ateratzea sekulakoa zen.

Etxean denak abertzaleak zarete.

Aitak, Urretxura etorri zenean, ez zekien

erdaraz. Gero ere, ez zen ondo moldatu erdaraz. Etxean euskaraz hitz egiten ez

*“Aitak, etxean
euskaraz hitz egiten
ez bagenuen,
pena handia
hartzen zuen”*

bagenuen, pena handia hartzen zuen. Eta meztalara joaten ez baginen, zer esanik ez... Meztalara joaten ahalegintzen ginen, gurasoak gustura uzteko.

Euskaltzalea ere bazara.

Etxean denok euskaraz hitz egiten dugu. Semeak ere euskaltzaleak dira. Seme zaharrenak 32 urte egin behar ditu eta lagunek, gazte denboran, euren artean

beti euskaraz hitz egitea erabaki zuten. Hitzeta bete dute. Hori Urretxun eta Zumarragan ez da arrunta. Nork hitz egiten du euskaraz? Kanean ez da nahikoa hitz egiten. Erraza da kanpokoei errua botatzea, baina dakitenek ez dute egiten.

Ba al duzu ametsen bat betetzear?

Ez. Oporretan, adibidez, aspalditik hemen gelditzen gara. Hori bai, lagun batzuekin lau irteera egiten ditugu urtero, Euskal Herriko toki ezberdinetara. Ezagutzen ez ditugun parajeetara. Aurten Urduñan, Tuteran eta Iparraldeko herri txiki batean izan gara.

Bestelakoan, nola ematen duzu eguna? Agifese elkartekoa ere bazara.

Tarteka bileraren bat egiten dugu, baina elkarteak ez digu denbora asko kentzen. Denbora gehiena mendian ematen dut. Dena den, edozein gauzatan ondo pasatzen dut. Irakurtzea ere asko gustatzen zait. Egun, *Los hombres que no amaban a las mujeres* ari naiz irakurtzen. Bestalde, egunero *Hitza* irakurtzen dut. *Hitza* ez badut, zer edo zer falta zaidala iruditzen zait. Lehen *El Diario Vasco* irakurtzen nuen, baina egun ez dut beharrik. *Hitzarekin* nahikoa dut. *Argia* ere astero irakurtzen dut. Harpideduna naiz. Musika ere entzuten dut. Anderrek (semeak) Gaztelekuko musika jartzen du eta hori entzuten dut.

Bere garaian, kantaldietara joango zinen...

Ez dok amairu ikustera joaten ginen. Benito Lertxundi, Gorka Knorr, Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Pantxoa eta Peio... Sekulako giroa sortzen zuten. Arrasaten, Etxarrin... egon ginela oroitzen dut. Ez naiz gogoratzen nola arraio joaten ginen, ez baikenuen autorik.

Txuti, erromes oso berezia

Astakirten, astakilo, astalapiko... Astoak ez du ospe ona gure artean eta norbait animalia honekin konparatzea iraintzat jotzen da. Ez da bidezkoa, ordea, gizakiak asko zor baitio astoari. Izan ere, betidanik lanean lagundu dio. Gregorio Zabalo zumarragarrak ederki asko daki hori eta animalia hau aukeratu du lagun Donejakue Bidea egiteko. Abuztuaren 30ean irten zen Orreagatik eta Santo Domingon emaztea elkartu zitzaion.

Gregorio Zabalo, bere astoarekin, Orreagara irten aurretik.



Zabalok 70 urte ditu, mendian ibiltzea oso gustuko du eta erretiratu zenetik nahi adina denbora du. Duela hilabete batzuk, Lizarran, Donejakue Bidea astoen laguntzaz egiten ari ziren kantopotar batzuk ikusi zituen. Berak ere hori egitea erabaki zuen.

Bere anaiak baserrian astoa du, baina ez zuten uste halako egitasmo baterako prestatzea lortuko zutenik, eta bere beharretara hobeto egokituko zen animalia bat bilatzea erabaki zuen. Hala, bere animaliekin Euskal Herriko jaiak girotzen dituen Gorritirekin harremanetan jarri zen. "Asto lasaiak izango zituela uste nuen, baina hezitako bakarra zuen eta milioi baten truke ere ez zidala emango esan zidan. Dena den, erosi dudana mantsoa dela esan zidan eta hala da", esan zuen Zumarragako erromesak Orreagara abiatu zen goizean. Zabalok duela bi hilabete eskuratu zuen

astoa. Donejakue Bidea hasi aurreko asteetan Argixaon eduki zuen, Mendizabal sendiaren lursail batean. Zumarragarrak egunero egin zion bisita, pentsua emateko eta paseatzera ateratzeko. “Argixao mendian ibili gara. Astoari saskietan harriak jarri dizkiot, pisua eramatera ohitu dadin. Oso azkar ikasi du eta oso pozik nago berarekin”, azaldu zuen. Ez da harritzekoa, sokatik tiratu gabe jarraitzen baitio.

Hain ondo konpontzen dira, non izena ere jarri baition. “Argia eta bizkorra denez, Txuti izena jarri diogu”. Animaliarri kariñoa hartu dio eta horrek arazoa sortu dio: “Ondo portatzen bada, saldu beharrak pena emango dit. Nola

“Renfekoei deitu nien eta animaliarik ez dutela garraiatzen esan zidaten. Beharbada, oinez itzuliko naiz”

itzuli izango da arazoa. Renfekoei deitu nien eta animaliarik ez dutela garraiatzen esan zidaten. Beharbada, itzulera ere oinez egingo dut”, esan zuen.

Izan ere, zumarragarrak ez du presarik. “Nire helburua paisaiez gozatzea eta herriak ezagutzea da”. Txutiren laguntzari esker, gainontzeko erromesak baino erosoago dabil: arropa eta janaria astoak daramatza eta Zabalok ez darma motxilarik bizkarrean. Astoaren saskiak bereziak dira, animalia txikia baita.

Zumarragako bikotea, astoarekin, Donejakue bidean.



Bere jabeak Matximentan enkargatu zituen. Funda iragazgaitzak bere emazteak josi ditu eta erromesak berak muturrekoa egin du, Txuti belarra jaten gelditu ez dadin.

Zumarragarrak detailerik txikiena ere kontuan izan du. Hala, astoa entrentzeaz eta egoki elikatzeaz gain, azazkalak limatu dizkio. Ez du uste ferrarik behar izango duenik, baina sufritzen ari dela ikusten badu, bidean ferratuko du. Dena den, pisua zaindu du. “15 bat kilo daramatza. Nire arropaz gain, bion pentsua darama. Ni naiz bizkar gainean pisu gehien daramana, dagoeneko 70 urte baititut”, esan zuen umorez.

Aipatu bezala, bi erromesak abuztuaren

30ean irten ziren Orreagatik. Irailaren 8an, Santo Domingo de la Calzada herrian, Zabaloren emaztea elkartu zitzaien. Dagoeneko, Galizia inguruan dira. Jendeak argazkiak ateratzen dizkie eta ETBko *Bi errepidean* saioan eurei buruzko erreportajea eskaini behar dute. Ez da harritzekoa. Izan ere, gutxi dira erromesaldia asto bat lagun hartuta egiten dutenak. Gainera, Txuti erromes maitagarria da: lasaia da eta ez du gainontzeko erromesen lasaitasuna zapuzten, ez baitaki arrantza egiten. Dena den, gaztea izanik, bihurrikeriaren bat edo beste egin du: Gregorio Zabalok bere semeak oparitutako kapela jaten harrapatu zuen. Lastozkoa da eta!

Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



IRAKURRIENAK

1. Iturriotzentzat izan dira Urruzuno lehiaketako lau sari.
2. Beain baserrian sutea izan zen atzo.
3. Zazpi domina Josetxo Mujikarentzat.
4. Buruhandi berriek garai bateko bandoleroak irudikatuko dituzte.
5. Karrozagileak hasi dira lanean.
6. Gaurtik aurrera GOITB bi herrietan ere ikusiko da.
7. Kaminpe inguruko lanek kezka sortu dute.
8. Balentziaga Numantziara.
9. Zabaleta bergararrantzat izan da Antioko I. rally-a.
10. Merkantzia tren batek istripua eragin du Zumarragan.

OTAMOTZ TELEBISTAN AZKENAK

- Merkantzia-trenaren istripua zuzenean.
- Merkantzia tren batek istripua eragin du.

- Urretxuko Euskal Jaia 1985-2009 liburua (4 bideo).
- Free-style erakustaldia.
- Euskal jantzien azoka.
- Altsasu: Amaiaren agurra.
- Buruhandi berrien aurkezpena.
- Euskal bandoleroen gaineko hitzaldia.
- Euskal Jaiaren 50 urteak argazkitan.
- Karrozagileak lanean.
- Gerrako haurrei buruzko erakusketa.
- Antioko XXVI. Musika Zikloa.
- Antioko Igoera I. Rally-a.
- Urola futbol taldeen aurkezpena.
- Santa Barbarako lanak.
- Tourseko San Martin elizako lanak.
- Senidetutako herrien arteko 7. xake txapelketa.
- I. Azoka Ekologikoa Urretxun.
- Santaisabel argazki rallya 2009.
- Geltokietako jaiak 2009.
- Saharako haurrak Zumarragan eta Urretxun.
- 'Ibilbideak' erakusketa.
- Santaisabelak (9 bideo).

AZKEN IRAGARKI LABURRAK

([HTTP://OTAMOTZ.IRAGARKILABURRAK.COM](http://OTAMOTZ.IRAGARKILABURRAK.COM))

- Urretxun garaje itxia salgai. Plaza bakarrekoa. Helbidea: Labeaga 15ean. 1.solairuan, 62. zenbakia. Estalia. 18 metro karratu. Prezioa: 24.000 euro.
- Frantsesezko irakaslea: 10 urteko haur bati frantsesa erakusteko irakasle partikularra nahiko nuke. Harremanetarako telefonoa: 943 72 59 14 / 679 575 457.
- Bikote bat gara, biok daukagu lana eta alokatzeko pisu baten bila gabiltza, Urretxun zein Zumarragan. Gurekin harremanetan jartzeko: 653 707 774.

1945

Urretxuko eskolako argazkia

Hona hemen garai hartako mutiko urretxuarrei eskolan ateratako argazkia.

Goiko ilaran: 10. Rodolfo, 11. Gabilondo.

Bigarren ilaran: 7. Iñaki Sasieta, 8. Castillo, 9. Indar, 10. Vicente Grande, 11. Anjel Sudupe, 12. Antia.

Hirugarren ilaran: 1. Jose Mari Azkarate, 2. Arturo Garrido, 4. Benito Pildain, 5. Gabilondo, 8. Sarasua, 9. Zubizarreta, 12. Juan Izagirre, 13. Luis Egiguren.

Laugarren ilaran: 5. Juan Mendizabal, 7. Garcia, 8. Luis Gonzalez, 10. Hilario Espada, 11. Antonio Izagirre, 12. Antia, 13. Castillo.

Bosgarren ilaran: 1. Pedro Zabala, 2. Elias Jauregi, 3. Garrido, 6. German Botella.


Eserita: Don Pablo Oñatibia apaiza, Felipe Elgarresta alkatea eta Don Mateo maisua.



Luis Blazquez: Txirrindularien hankek behar dituzten eskuak

Luis Blazquez urretxuar gaztea masajista da eta kirolariekin lan egin du batik bat. Goierriren areto futbol taldean hasi zen eta, ondoren, txirrindularitza munduan murgildu zen. Amateur mailako Caja Rural taldean eman zituen lehen pausoak eta Kaiku eta Contentpolis Ampo talde profesionaletan ere lan egin du. Santa Polan (Alacant) bizi da eta abuztutik ostalaritzan dihardu.

Dioni Galparsoro txirrindulari ataundarra zoriontzen, azken honek lasterketa bat irabazi ondoren.



Nolatan hasi zinen masaje munduan?

Kasualitatez izan zen. Betidanik kirolzalea naiz eta, UBIn ikasgai batzuk suspenditu nituenean, masaje ikastea erabaki nuen. Gustatu egin zitzaidan eta lau urte eman nituen Donostian jarduera hau ikasten. Kirol masajea, terapeutikoa eta drainatze linfatikoa ikasi nituen. Lehen ikasturtearen amaieran Goierriren areto futbol taldean hasi nintzen.

Kirola oso gustuko duzula esan duzu.

Hala da. Atletismoa egiten nuen, iraupen-lasterketak, baina telebistan dene-tik ikusten nuen: futbola, eskubaloia... Lesio pare bat izan nuen eta, 17 urte ingururekin, atletismoa utzi nuen. Nekatuta nengoen.

Nolatan murgildu zinen txirrindularitza munduan?

Caja Rural taldean hasi nintzen, baina garai hartan Goierriekin eta Urretxuko kiroldegian ere lan egiten nuen. Lau denboraldi eman nituen aipatutako txi-

rrindularitza taldean, 1998tik aurrera. Nola hasi nintzen? Castelló-ko itzulirako masajista behar zutela jakin nuen eta eurekin harremanetan jarri nintzen. Bertan Oskar Guerrero zuzendaria ezagutu nuen eta ordutik aurrera berarekin lan egin nuen.

Profesional mailako txirrindularitza talde batean lan egitea gogorra al da?

Gogorra da, baina gustuko dugunez, gus-tura egiten dugu. Etxetik kanpo ordu asko eman behar dira, baina taldeko giroa ona bada, lan polita da. Bestalde, txirrindulariak esker onekoak dira.

Lasterketa gogor baten ondoren txirrindularien giharrak hurrengo egunerako prest uztea zaila al da?

Euria egiten duen egunetan gehiago kostatzen da. Hotelera heldu eta afaltzeko ordua hasi bitartean, ahal duguna egiten saiatzen gara.

Zuen eskuetan txirrindulariak lasaitu egiten direla eta euren sekretuak kontatzen dizkizuetela esan ohi da. Hala al da?

Azken finean, eurentzat masajearena da eguneko unerik lasaiena. Batzuetan oso nekatuta heltzen dira eta ez dute solaserako indarririk izaten, baina norma-lean asko hitz egiten dute. Masaje gelan biok bakarrik egoten gara eta denetik hitz egiten da.

Zeintzuk dira zure eskuetatik pasatu diren txirrindulari ezagunenak?

Caja Rural taldean Jon Bru, Egoi Martinez, Gorka Verdugo, Patxi Vila... ezagutu nituen. Kaiku taldean, berriz, Ezequiel Mosquera, Gustavo Veloso eta Adrian Palomaresekin lan egin nuen. Iban Mayo ere ezagutu nuen, Baque taldearekin itzuli bat egin bainuen. Contentpolis

Ampo taldekoei dagokienez, Dioni Galparsoroekin harreman estua dut. Izan ere, Caja Ruralen eta Kaikun ere berarekin izan nintzen.

Zein txirrindularik txunditu zaitu gehien?

Jon Bruren zangoak harrigarriak dira. Altuera txikikoa da, baina sekulako giharrak ditu. Mikel Gaztañaga antzerakoa da.

Zergatik utzi duzu txirrindularitza mundua?

Ezkonduta nago eta emaztea haurdun dago. Mundu honetan, aipatu bezala, etxetik kanpo denbora luzea eman behar da. Egun, nahiago dut emaztearekin etxe-

“Jon Bruren zangoak harrigarriak dira.

Altuera txikikoa da,

baina sekulako

giharrak ditu”

an egon. Santa Polan bizi gara eta jatetxe batean lan egiten dut. Dena den, etxean masajeak ematen ditut.

Contentpolis Ampo taldea uztaila amaieran utzi zenuen, Espainiako Itzulia hasi baino hilabete lehenago. Itzuli handi bat ezagutzeko aukera galdu izanak ez al dizu pena ematen?

Itzuli handietan eta txikietan lan bera egiten dugu. Dena den, Espainiako Itzulia edo Tourra sekulakoak izango dira. Duela urte batzuk pena emango zidan, baina adinean aurrera joan

ahala, gauzak beste era batera ikusten dira. Txirrindulariak utzi izana ematen dit pena, batez ere. Izan ere, lagun onak utzi ditut. Beharbada, egunen batean itzuliko naiz.

Txirrindularitzaren atea ez duzu erabat itxi, beraz.

Ez dut itxi. Hor dagoen aukera bat da eta, inoiz eskaintza polita suertatzen bada edo behar badut, itzuliko naiz. Hala ere, esan bezala, oraingoz jaioko den haurraz gozatu eta etxean lo egin nahi dut.

Bizikletan ibiltzen al zara?

Bizikletan ibiltzen naiz, baina sekula ez naiz lehiatu. Nire osabetako batzuk, ordea, amateur mailako txirrindulariak izan ziren.

Txirrindularitza masajista batentzat kirol berezia al da?


Kirol bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Txirrindularitza munduan masajistaren lana errekupeziara zuzendua dago. Futboleant, ordea, lesionatuekin lan egiten da batik bat.

Beste kirolen bat probatzea gustatuko al litzaizuke?

Atletismoa, beharbada. Izan ere, kirol hau praktikatu nuen arren, sekula ez diet atle-tei masajerik eman.

Zer dohain behar ditu masajista onak?

Eskuetan sentsibilitatea behar da. Denbora ere behar da, ukitzearen poderioz ikasten baita. Horrez gain, gainontzeko lanbideetan bezala, lan egiteko gogoia behar da. Txirrindularien kasuan, psikologo lana egiten ere jakin behar da. Izan ere, eurekin asko hitz egiten dugu eta batzuetan lur jota heltzen dira guregana.



Alex Areizaga

Informatika

Ikasturte berrirako prest

Ordenagailuak zoragarri funtzionatzen du erosten dugunean, baina denborarekin eta erabilerarekin, arazoak ematen hasten da. Hori ordenagailuek ere mantentze lanak behar dituztelako da. Alde batetik *hardwarea* edo alde fisikoa dugu, eta hemen hautsa izan ohi da etsairik handiena. Horretarako, ordenagailua ireki eta hauts hori goxotasunez kentzea besterik ez dago. *Softwareari* dagokionez, hiru dira errendimendua hobetzeko egin ditzakegun gauzak; 1. Disko gogorrean espazio librea izan. Ordenagailuak espazio libre gutxi duenean abiadura eta errendimendua jaitsi egiten du. 2. Disko gogorra desfragmentatzea. Hau kontrol paneletik egin dezakegu eta disko gogorrean ditugun espazioak eta informazio solteak elkartzen ditu automatikoki, errendimendua igoz. 3. *Softwarea* eguneratua izatea. Honela ez dira arazo guztiak joango (*Windowsen* sinonimoetariko bat da arazo hitza), baina batzuk ziurrenik, bai.



Miren Arrieta

Osasuna

Hemorroideak edo odoluzkiak

Gai honi buruz hitz egiteak beti lotsatu egiten gaitu, baina egia esan beharko bagenu gehienok gure bizitzan pairatu edo pairatuko ditugula noizbait esango genuke. Berez, uzki inguruko zainen dilatazioak dira, bari-zeen antzera. Beren sorreran zerikusia duten faktoreak hauek dira: heren-tzia, idorreria, beherakoa, haurdunaldia, zutik edo eserita ordu asko pasatzea... Ematen dituen sintomak, azkura, libratzerakoan mina eta odol gorri bizi emanaldi txikiak dira. Hala ere odola sarri botatzen bada medikuarekin kontsultatzea komeni da. Sintoma hauek kontrolatzeko oso garrantzitsua libratzeko erritmoa erregula-tzea da eta idorreria eta beherakoa eragozteak. Ez da komuneko paperik erabili behar, garbitzeko ura eta xaboia hobeak dira, pikanteak, kafea eta txokolatea bezalako jakiak ez dira jan behar. Neurri hauek hartuta ere gauzak okertzen badira, medikuarengana jo.

Estu-estu



Bihotzean daude, bizirik zein hilda, lehen musuak eta ezezkoak, malko gorriak eta ezpain gorriagoak, tintaz mukuru behar luketen gutun zuriak, mesanotxeko tiraderakoak, zakarrontzikoak...

Bihotza, ui bihotza, argazkiz jositako tren-geltoki bat bezalako da. Badatoz tren handiak, badoaz txikiagoak. Etengabe. Maitasuna esertzen da bagoietako aulki guztietan, hainbeste pisua duen zera hori. Eta trenak bezalaxe, badator eta badoa.

Hori da pisuzko egiak bihotzean ez gordetzeko arrazoia, ez dela komeni nahi dutenean joateko eskubidea izatea. Hobeto daude kutxa-goporrean, munduko pasahitz zailenaren mende. Guantanamon preso.

Nik badaukat ene Guantanamo, eta zuk zurea, eta baita Martinak ere. Kontua da Martinak erauntsi egin nahi izan zuela. Ez zuen lortu, ordea, eta bere saihesten artetik per-

tsiana jaitsi zuen betiko, barroteak ez baitziren nahikoa Guantanamo osoa ezkutatzeko.

Horregatik diote auzoan neska bitxia dela zinez; bere egiei bihotzean egiten dielako lekua, eta badatozkiolako, eta badoazkiolako... Jendeak uste du egien kilogramoei jaramonik egiten ez dielako hartzen duela jarrera hori, baina ez da hala. Ez zaio iruditzen Eroski-n hiru txokolate tableta ebatsi dituen mutikoa eta hogeit hamar neska errusiar prostituitzera behartu dituen traje beltzeko gizona zelda berean sartu behar direnik. Traje beltzeko gizon ugari atxilotu zituen txikitari bere kartzelan eta ez du mutil koskorrek ezagut ditzaten nahi, hauek gizontzean traje beltza jantziko duten beldurrez.

Martinak txokolate tabletak ez, baina gozoki-dendako txikle batzuk osten ditu noizbehinka. Koadrilako tabernaz tabernako jira eteten du gozo-dendan igande arratsaldeetako pipa paketea erostera sartzeko. Segurtasun osoz zeharkatzen ditu gominolen ontziak, patata zorroak eta chupa chups-ez goraino dauden marrazkidun poteak. Orduan, begiak ohi baino gehiago zabaltzen zaizkio eta mugimendu bakarrean hiruzpalau txikle sartzen ditu diru-zorroan eta pipak ordaintzeko txanpona ateratzen du bertatik. Beroa sentitzen du gorputz osoan, eskuak izerditan blai sumatzen ditu. Irribarre ñimiño batek egiten dio ihes, gogoko du. Pipa paketearekin zuzentzen da tabernan dauden bere lagunengana, pipa azalez estaltzen dute zorua denen artean eta diru-zorrotik txikleak ateratzen ditu Martinak. Barre ozen bat irteten da bakarren baten ahotik, hamar urte zituzteneko garaiak etortzen zaizkie gogora eta orduko kontuak kontatzeari ekiten diote. Martinak, ordea, ez du bat bera ere gogoan, ez gogoan eta ez inon.

Amaia Iturriotz

Ipuin hau Urruzuno literatur lehiaketan saritua izan da. www.otamotz.com Web orrian osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Asier Auzmendi

Asier Auzmendi urretxuarrak 23 urte ditu eta ikastolan eta lizeoan egin zituen oinarrizko ikasketak. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua izateko gutxi falta zaio. Urretxu eta Zumarragan aski ezaguna da, pertsona irekia izateaz gain, Krak eta Soraluze tabernetan lan egiten baitu. Horretaz gain, Legazpiko lagun batekin batera kirol zerbitzuen enpresa abian jarri du. Goierri Garaiaiko herrietako eskola kirolaz arduratuko dira eta, gainera, irteerak antolatuko dituzte: eskiatzera, abentura kirolak egitera...

Zer izan nahi zenuen umetan?

Pilotaria izan nahi nuen. 5 urtetik 18 urtera bitartean pilotan jokatu nuen.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Denbora libre gutxi dut. Kirola egitea gustatzen zait, batez ere. Denetik pixka bat egiten dut, baina serio batera ez: triatloia, pilota, frontenisas, areto futbola...

Bizitzeko toki bat?

Urretxu, noski. Urretxuar petoa naiz betidanik... eta betirako espero dut!

Zein kirol duzu gustuko?

Kirol gustiak atsegin ditut, bai egiteko eta bai ikusteko.

Gustuko kirolaria?

Usain Bolt. Ez da kirolaria, makina da.

Herriko bertsolari txapelketan parte hartzen duzu. Norekin arituko zinateke gustura puntuka?

Ordu batetik aurrera edozeinekin.

Zein da zure bertsolari gogokoena?

Peñagarikano.

Zein da tabernari lanaren alderik onena?

Niri gustatu egiten zait. Barra barruan parranda egiten dut.

Eta alde txarrik ba al du?

Oraindik ez diot aurkitu.

Ileheriak ala beltzaranak?

Ilegorriak ere bai.

Egindako azken oparia?

Eskubaloian jokatzeko zapatilak.



Eta jasotakoa?

Ordulari bat.

Data bat?

Urretxuko festetako Euskal Jaia.

Neska eta mutil izen bana?

Naia ('H' gabe) eta Iker.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Hitza eta, batzuetan, Gara.

Gustuko telebista saioa?

Kirolari buruzko erreportajeak gustatzen zaizkit, gehienetan kirol berezien ingurukoak izaten baitira.

Bereziki gorroto duzuna?

Gran Hermano.

Liburu bat?

Ez zait irakurtzea gustatzen.

Pelikula bat?

Ez ditut pelikula asko ikusten.

Abesti bat?

Txoria txori.

Soinu bat?

Ur jauziena.

Usain bat?

Makarroi egin berriena.

Janari bat?

Pasta. Edozein eratarata.

Ura ala...

Mojitoa eta Ondarroako Kafe Antzokiko destornilladorea.

I AM
TÚ ERES

... هي

GU GARA

VOUS ÊTES

ELES SÃO

Elkar ulertzeko, euskara.

PARA ENTENDERNOS MUTUAMENTE, EUSKERA
TO UNDERSTAND EACH OTHER, EUSKERA
لكي نتفاهم فيما بيننا، استعمل اللغة الباسكية
POUR NOUS COMPRENDRE MUTUELLEMENT, EUSKERA
PARA COMPREENDER-NOS, EUSKERA



EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA

CURSO 09-10 ikasturtea

5 arrazoi on

udal euskaltegian izena emateko

- Zure seme-alabei etxeko lanetan laguntzea erraztuko dizu.
- Komunikabideak ulertzen lagunduko dizu.
- Lagun berriak egingo dituzu.
- Lana aurkitzen lagunduko dizu.
- Euskaraz irakurtzen eta idazten trebatuko zara.

Abantailak

- Titulu ofizialak.
- 30 urteko esperientzia.
- Ordutegi eta erritmo malguak.
- Kurtsoa finantzatzeko beka.
- Ekintza osagarriak.

5 buenas razones

para apuntarse en el euskaltegi municipal

- Te facilitará la comunicación con tus hijos.
- Ta ayudará a entender el idioma y la cultura vasca.
- Podrás establecer nuevas relaciones.
- Te ayudará a la hora de encontrar trabajo.
- Te integrarás más fácilmente.

Ventajas

- Títulos oficiales.
- 30 años de experiencia.
- Amplio horario.
- Becas para financiar el curso.
- Actividades complementarias.

Eskaintza

Aurrez aurreko ikastaroak: euskalduntzea eta alfabetatzea, EGA, HABE eta hizkuntza eskakizunetako azterketak prestatzeko ikastaroak, autoikaskuntza ikastaroak, mintzalaguna eta irakurle taldea (doan).

Erritmoak

Modulu eta ordutegi zabalak.

Diru-laguntzak

%25etik %100era bitarteko matrikula itzulketa.

Oferta

Todos los niveles de euskaldunización, alfabetización, preparación para los exámenes de EGA, HABE y perfiles lingüísticos. Cursos de autoaprendizaje.

Ritmos

Módulos y horarios flexibles.

Becas y ayudas

Ayudas desde el 25 al 100% de la matrícula.

Urretxu-Zumarragako udal euskaltegia

Labeaga kalea 40 A (Belaustegi plaza)

Urretxu

Tel: 943 72 33 10

euskaltegi.urzum@udal.gipuzkoa.net

euskaltegi@uzue.e.telefonica.net

Bulego ordutegi-horario de oficina: 9.00-13.00/15.00-19.00



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Legazpiko Olazabal Institutuaren ondoan
6 chalet adosaturen eraikuntza eta salmenta

Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak